

GATAZKEK IRAKATSI DIDATE



Partidua¹

Gatazkak konpondu behar direnean, beste gauzen artean sormena eta irudimena erabili behar dira.

Dinamika honetan proposatzen da kirol-arlo sexu-diskriminazioko gatazka bati buruzko rol-jokoa egitea. Horretarako, partaideak hironaka jarriko dira: bat behatzailea izango da, bestea mutikoa eta bestea neskatila. Irakasleak seinalea ematean, rolak aldatuko dituzte. Ahal bada, komenigarria da espazio zabal batean egitea (jolasokia, futbol-zelaia...)

Neska batek futbol-taldeko kapitainari eskatuko dio taldean sartzea. Orain arte futbol-taldean bakarrik mutilak sartu dira. Hemendik aurrera hasiko da rol-jokoa.

- Kapitaina. Badakizu neska hori ona dela futbolean, baina uste duzu mutikoen jolasteko modua eta neskena ez direla berdinak. Neska horrek ez du izango zuek bezala jolasteko adina indar. Gainera, zer esango lukete zure taldeko gainerako mutilek eta beste taldeetakoek neskari sartzen utziko bazenio?
- Neska. Aspaldi jolasten zara neskekin futbolean, baina, zure ustez, bada garaia futbol-talde mistoak egoteko, neskek eta mutilek bereizita jolasteari utzi behar diote. Auzoan, askotan jolastu zara mutilekin, aurrelari gisa, eta golak sartu eta pase onak eman dituzu. Ez duzu onartuko neska izate hutsagatik taldean sartzen ez uztea; areto-futbolean nola jolasten zaren aztertu beharko lukete erabaki hori hartzeko.

5-10 minutu igaro eta gero, rolak aldatu eta rol-jokoarekin jarraituko dute. Hirugarren aldiz aldatuko dituzte rolak, hirukote bakoitzeko kide guztiak hiru roletan aritu daitezten.

Ondoren, egindakoa baloratuko dute:

- ✓ Nola sentitu zara?
- ✓ Jakin al duzu besteek zer sentitu duten?
- ✓ Nola sentituko zinateke nahi duzun hori egiten utziko ez balizute, emakumea, gizona, zuria edo beltza izateagatik, besteak beste?
- ✓ Ba al dakizu errealitatean horrelakorik gertatzen den?

Bukatzeko egoera hau proposatu daiteke: Demagun ados jartzen zaretela, eta nesken eta mutilen arteko talde bat osatzea erabakitzen duzuela. Eskola-mailako lehiaketa batean parte hartzeko aukeratu zaituztete, baina esan dizute lehiaketa horretan neskek ezin dutela parte hartu. Zer egingo duzue? Zer jarrera hartuko duzue ikastalde gisa?

¹ Seminario de Educación para la Paz y Asociación Pro Derechos Humanos: *Jolasen Alternatiba II. Bakerako hezkuntzako jolasak eta dinamikak*. Los libros de la Catarata argitaletxea. Madril. 2010. Moldatua.